



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEREN AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN TXOSTENA, HABEK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN ETA BETETZEN DITUEN JARDUEREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTUKO DITUEN ETA INDARREAN DAGOEN 2020KO ABUZTUAREN 4KO AGINDUA INDARGABETUKO DUEN XEDAPEN-PROIEKTUARI BURUZKOA

I.- AURREKARIAK ETA AHALMENA.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren 2026ko abuztuaren 8ko Aginduz, aldez aurreko onarpena eman zaio bideratzen ari den Agindu-egitasmoari, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako erakunde autonomiadunak (HABEk) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak arautuko dituen eta indarrean dagoen 2020ko abuztuaren 4ko Agindua indargabetuko duen xedapen-egitasmoa.

Honako dokumentu hauek osatzen dute espedienteak:

- 2026eko abuztuaren 6ko Agindua, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, Aginduaren proiektua hastekoa.
- Egitasmoaren Memoria
- Agindu-proiektua, elebitan.
- 2026ko abuztuaren 8ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Agindu-egitasmoa aldez aurretik onartzen duena.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen 6/2022 Legeak, ekainaren 30ekoak, bere 15.4 artikuluan ezartzen du, dagokion sailari egoki iritziz gero, espedientearen edukia eta analisi juridikoa berariazko txosten juridiko batean jasoko direla, eta txosten hori prozedura bideratu duen saileko zerbitzu juridikoak egingo duela.

Aukera horri jarraikiz, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak egitasmoaren prozedurari hasiera emateko 2026ko abuztuaren 6ko Aginduan erabaki zuen HABEren Zuzendaritza Nagusia arituko zela organo izapidegile gisa, eta espedienteari dagokion txosten juridikoa egingo zela.



HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Aldi berean, HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen du Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen Kudeaketa zerbitzuari dagozkiola erakundeko beste zerbitzu eta atalei laguntzeko eginkizunak, HABEren egitekoak zuzen bete ditzaten, legearen, ekonomiaren eta oro har prozedura edota administrazio arloan egoki den guztian. Besteak beste, artikulua 2.e) atalaren arabera, zerbitzu horri dagokio *«erakundearen lege-aholkularitza burutzea, HABEk sortuko dituen xedapen eta egintza administrazioei buruzko ikuspegi juridikoaz eta arau orokorren markoaren Barneko integrazioaz iritzia emanez»*

Beraz, aurreko xedapenen bidez agindutakoa betetzeko egiten da txosten hau. Bere helburua da oinarritzea egitasmo berriaren edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorrela eta betetzen direla kasuan kasu ezartzen diren aragintza-teknikaren gaineko jarraibideak.

Proiektuak oinarri hartu ditu honako arau hauek:

- Azaroaren 25eko 29/1983 Legea, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortzekoa, non ezartzen diren HABEren helburuak eta betekizunak (bigarren Artikulua).
- 29/1983 Legea garatuz, uztailaren 22ko 179/2003 Dekretua, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldeko finantzazioa arautzeko onartutakoa. Dekretuak bere 4. artikuluan aipatu legean esandakoa zehazten du eta, aldi berean, ezartzen du Kultura Sailburuaren Aginduz ezagutza mailen egiaztapen-sistema zehaztuko dela, Helduen Euskalduntzearen Oinarritzako Curriculumak eta Europako marko bateratuak ezarritakoaren arabera.
- 1/2025 Legegintzako Dekretua, martxoaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasean eta Prezio Publikoen Legearen testu bategina onartzekoa, EHAAn 2025eko apirilaren 8an argitaratutakoa, eta haren huts-zuzenketak, hurrenez hurren, 2025eko apirilaren 16an eta apirilaren 30ean argitaratutakoak.
- Uztailaren 30eko 397/2013 Dekretua, prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak jasotzen dituenak. Bere eranskinaren 18. atalak jasotzen ditu, hain zuzen ere, HABEk eskaintzen dituen zerbitzuen artean prezio publikoen arabera ordain daitezkeenak.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

- 2020ko abuztuaren 4ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde autonomiadunak (HABE) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzen dituen, lehenengo aldiz 2021eko uztailaren 30eko Aginduz aldatu zena, bigarren aldiz 2023ko irailaren 29ko Aginduz, hirugarren aldiz 2024ko abuztuaren 13ko Aginduz eta laugarren aldiz 2025eko abenduaren 23ko Aginduz.
- Ekainaren 30eko 6/2022 Legea, Xedapen Orokorrek egiteko Prozedurarena.
- 78/2023 Ebazpena, uztailaren 28koa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzeko erabakia.

Xedapen-proposamena ez dago aurreikusita, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikulua eta Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren Legearen 8. artikulua eskatzen duten bezala, Eusko Jaurilaritzaren 2026ko Arau Plangintzan. Izan ere, ekitaldi honetan egindako analisi ekonomikoaren ondorioz ohartu du bere zerbitzu eta jardueren prezioak eguneratzeko ezinbesteko beharra.

Egoera horrek ez du oztopatzen xedapen-proposamenaren izapidearekin jarraitzea, betiere aipatu 6/2022 Legearen 8. artikuluen 4. paragrafoan ezarritako zurieta betetzen bada; alegia, “.. *inguruabar hori justifikatu egin beharko da dagozkion memorietan.*”, kasu honetan, espedienteari atxikitu zaion Memoria ekonomikoan.

II.- AGINDUAREN XEDEA.

Aurrekariak eta agindu-proposamena alderatzetik ondorioztatzen da bi direla Agindu proposamenaren helburuak. Batetik, prezioen eguneraketa orokor bat, memoria ekonomikoak azaltzen duen moduan. Baina nabaria da ere aurreko agindua indargabetu eta berria egiteak sistematika-aldaketa bat ere ekarri duela, eta ondorioz, jasotzen diren prezioak berrantolatu eta beste batzuk ezabatu egin dira, testuaren azterketa juridikoan zehazten den moduan.

III.- ESKUMENA

1/2025 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 20koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bategina onartzekoak ezartzen du, bere 33.1 artikuluan, prezio publikoen zenbatekoa finkatu edo aldatuko dela *«prezioak kobratu behar dituen organoak edo enteak gainerik daukan saileko titularraren aginduz, organo edo ente horrek proposaturik, [edo] zuzenean merkataritzako organismo autonomoen eskutik, gainerik duten sailaren baimena jasota aurrez, haien jardueraren xede diren zerbitzuei edo ondasun-salmentari dagozkien prezioak direnean.»*

HABEk gauzatzen dituen zerbitzu eta jardueren prezioei dagokienez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikita dago erakundea, administrazio-izaera duen erakunde autonomo gisa, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuak ezarritakoaren arabera. (2.2.a artikulua).

Beraz, HABEk eskaintzen dituen zerbitzuen eta jardueren prezioak ezartzeko eta, egitasmoaren kasua den bezala, eguneratzeko edota indarrean jartzeko eskumena Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio, Agindu mailako xedapen orokor baten bitartez.

Xedapen-egitasmoaren edukiarekiko eskumenaren aldetik, berriz, aipatutako tasa eta prezio publikoei buruzko Legegintzako dekretuaren 31. artikulua dioenaren arabera, *«Dekretu bidez zehaztuko da zein zerbitzu eta jarduera ordaindu ahal izango diren prezio publikoen bidez; horretarako, proposamena egingo dute elkarrekin ogasunaren arloan eskumena duen sailak, batetik, eta, bestetik, zerbitzu edo jardura horiek ematen dituen sailak edo dagokion organoa edo entea atxikita duen sailak.»*

Alde horretatik, uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak ezartzen dituenean, zehazturik daude prezio publikoen bitartez ordainduak izan daitezkeenak, HABEk gauzatzen dituen zerbitzu eta jardueren artean. Nahiz Dekretu hori 1/2025 Legegintzako Dekretuaren aurrekoa den, Legegintzako dekretuak ez du hura indargabetu eta ez du oraindik garapenerako berariazko araurik, eta ondorioz, hemen dagozkion efektuetarako indarrean dagoela ondorioztatu behar da.

Prozedura izapidetzeko eskumenari dagokionez, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, 12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, xedapen-egitasmoaren gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren Aginduz hasi behar da prozedura hori, eta aldez aurreko onarpena eman ere.

Horiek horrela, bada, Jaurlaritzako lehenen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio Proiektuaren xede den gaiaren aldeko eskumena, eta proiektua onartzeko jarraitu behar den izapidearen

aldeko erabakiak hartzeko eskumena ere.

IV.- ARAU-ERAGINAREN MEMORIA ETA EDUKIAREN AZTERKETA.

6/2022 legearen 15.3 artikulua zehazten du izapidetze araugileek arau-eraginaren memoria

- a) Proposamenaren egokitasuna: Memoria justifikatzaile eta ekonomikoak adierazi du zein neurritan den egokia arau hau izapidetzea. Egokitasunaren eztabaida bakarra da aurretiaz bazela alderdi horiek guztiak jasotzen zituen arau bat, eta ondorioz, egokiagoa ote zen hura berritzea ala arau berri bat egitea. Egokitze jotzen da hemen hartu den arau berri bat egitearen erabakia, batetik, hala gomendatua izan zelako indargabetu nahi den araua laugarrenez aldatu zeneko izapidean, bai zerga administratzaileko zuzendaritzak bai kontrol ekonomikoko bulegoak aginduta, eta bestetik, ez direlako kontzeptu guztiak bere horretan mantenduko, batzuk ezabatuak izango baitira, ondoren azaltzen den moduan.
- b) Azterketa juridikoa:

Testuaren egitura.

Testuaren egiturari begira, Jaurilaritzako Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenaren bitartez argitaratutako jarraibideak hartu behar dira kontuan, hain zuzen ere, Gobernu Kontseiluak, 2023ko uztailaren 11n egindako bilkuran, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko onartu zituen jarraibideak (2023ko abuztuaren 7ko EHAA, 149. zk).

Arau-xedapen guztietarako oro har ezarritako irizpideez gain, Jarraibideen Bederatzigarren Kapitulan jasotzen dira, "Arau Aldarazleak" izendatutakoan, indarrean dauden arau-xedapenak aldatzen dituzten arauetara bideratutako irizpide espezifikoak; hain zuzen ere, aldaketa teknikaren erabilpenari, arau aldarazleen izenburuari, arau aldarazleen artikuluei, estiloari, artikulua gehitzeari, aldaketa-hurrenkerari, eta apartatuak edo paragrafoak eransteko moduari buruzko irizpideak.

Egokitze jotzen da arau-proposamenak nola jasotzen dituen 6/2022 legearen 4. artikuluan aurreikusitako printzipioak, eta bereziki, 4.g) atalean jasotako irisgarritasunaren printzipioa, hain zuzen ere, printzipio hori garatzeko 19/2024 Dekretuak ezarritako taxonomia, haien artean desgaitasun bat duten hizkuntza-egiaztatzen partzialena (zeintzuek, muga fisikoak direla eta, ezin dituzten trebetasun guztiak egiaztatu)

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

bere egiten duen neurrian.

Egitasmoren testua azertu ondoren, ikusten da jarraitu direla, oro har, xedapenen egituraren aldetik onartu diren irizpideak, honako hau izanik proposamenari eman zaion egitura:

Agindu-proiektua sei artikuluk, xedapen indargabetzaile batek eta eta azken xedapen batek osatzen dute.

- Lehen artikulua: Aginduaren xedea ezarten du.
- Bigarren artikulua: Euskara irakasteko zerbitzuen prezio publikoak zehazten ditu, hala nola sektore publikoko erakundeen langileekin osatutako taldeetan, barnetegietan eta Sektore publikoko langileen ikas-taldeetan sartzen ez diren ikasle solteekiko eskatzen diren prezio publikoak zehazten dira.
- Hirugarren artikulua: Hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesuetan parte hartzeagatik eskatuko diren prezio publikoak zehazten dira.
- Laugarren artikulua: Mintegi, kongresu, jardunaldi eta ikastaroetako matrikulen prezio publikoak zehazten dira.
- Bosgarren artikulua: Argitalpen eta material didaktikoen prezio publikoak zehazten dira, BEZ kanpo, eta uneoro dagokion BEZa erantsiko zaiela zehazten da.
- Seigarren artikulua: Ordaintzeko baldintzak zehazten dira.
- Xedapen indargabetzailea: 2020ko abuztuaren 4ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, eta izan dituen lau eguneraketak indargabetzen ditu.
- Azken Xedapena: egitasmoaren indarraldiaren hasiera zehazten du.

Edukiaren azterketa.

Aurreko atalean adierazi den bezala, Agindu-proposamenaren edukia abuztuaren 4ko Aginduan ezartzen zirenzioak eguneratzea eta sistematika antolatzea dago bideratua. Zentzu horretan, arau ekimenak ez du txertatzen aurreko araudiak aurreikusten ez zuen kategoriarik, eta, aldiz, zenbait birformulatu edo zuzenean kendu egin ditu; hala, autoikaskuntza tutorizatua, ez dena lizentzia-kopurutan zenbatuko, ordutan baizik (eta horrek prezio publikoen ezarpenaren sinplifikazio bat dakar), mintzasaioetan lantokian osatutako taldeak eta telefono edo IKTen bidezko prezio publikoak kendu dira (Agindu zaharreko 2.f.2.i) eta ii) atalak), zerbitzu osagarrietan lizentzia finkotik mugikorrerako aldaketa eta lizentzia ikasle batek beste bati pasazioeko prezioa ezabatu dira (2.f.2.iii) a) eta b) atalak), eta lotura eskubideak (2.h artikulua) desagertu egin dira ere.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Prezioa ezartzen zaien zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak ezartzen dituen uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuaren eranskinaren 2. eta 18. ataletan zehaztutako zerbitzuen artean jasota daude:

«2.– Erakunde autonomoek dituzte zerbitzu eta jarduera komunak.

- Mintegi, biltzar, jardunaldi eta ikastaroen matrikulak.»

«18.– Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundea (HABE).

- Material didaktikoaren salmenta
- Euskara irakasteko zerbitzuak.
- Hautapen eta hizkuntza-ebaluaziorako zerbitzuak»

Bestalde, prezio publikoen zenbatekoa ezartzeari begira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko aipatu Legearen Testu Bateginaren 32. artikuluan daude jasota oinarritzko irizpideak. Hala dio manu horrek:

«1.– Kasuan kasuko jarduerak egiteko edo zerbitzuak emateko kostu ekonomikoak gutxienez berdintzeko adinakoak izango dira prezio publikoak, eta, zehaztapena egiteko, kontuan izango da beti jarduera edo zerbitzu horiek gizarteari dakarkioten onura.

2.– Gizartearekin, ongintzarekin, kulturarekin edo interes publikoarekin zerikusia duten arrazoiak direla eta, aurreko apartatuan aurreikusitakoak baino prezio publiko merkeagoak ezar daitezke, preziotik diruz lagunduko den zatia ordaintzeko aurrekontu-aurreikuspenak ezarri ondoren.

3.– Halaber, eta aurreko apartatuan aipatutako aurrekontu-aurreikuspenak betetzeko, ordaintzeko betebeharra duten subjektuen egoera edo jardueren ezaugarri bereziak kontuan harturik, salbuespenak eta hobariak ezarri ahal izango dira ordaindu beharreko prezio publikoetan. Prezioak finkatzen dituen xedapenean zehaztuko dira inguruabar horiek.»

Espedientean agertzen den Memorian adierazitakoa kontuan hartuta, badirudi bideratzen de xedapen-proposamena beharrezkoa dela, alde batetik, HABEk eskaintzen dituen zerbitzuen kosteak igo egin direlako eta, ondorioz, prezioa gutxienez kostuaren adinakoa izateko irizpideak ezinbestez eskatzen du prezioak igotzea. Dena den, argitalpenen prezioa ez da igo, memoriak dioenez, stock finko baten eskaintza baino ez delako, faktore garestitzailerik ez omen duena.

Esan daiteke, beraz, xedapen-egitasmoaren edukia egitasmoa onartzeko eskumena duen organoaren eskumen-esparrura mugatzen dela edukiaren aldetik ere, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 129. artikuluan ezarritako printzipioak betetzen dituela, alegia, izapidetzen ari den araua ezinbestekoa da ezarritako prezioak aldatzeko edo berriak ezartzeko, bere edukia proportzionala duen helburua betetzeko, eta ez du arau horrek beharrezko ez den administrazio-karga berririk eranstean.

Hala ere, orain arte aipatu den Testu Bateginaren 33. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, espedientean emango den Memoria ekonomikoaren xede denez egitasmo-proposamenean jasotako prezioekiko ondoren zerrendatutako aldean azterketa eta xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan eskatzen diren kuantifikazio eta eragin-azterketak, txosten horretara biltzen du txosten juridiko hau sinatzen duen honek alde horien analisia.

Ikuspuntu juridikotik, hiru ohar egin behar ditu, dena den, aholkularitza honek:

1.-19/2024 Dekretuarekiko mimetismoa. 3. artikulua, egiaztatze-gintza-prozesuan parte hartzeko prezioak zehazterakoak, zuzenean zuzentzen zaio otsailaren 2ko 19/2024 Dekretuari, sektore publikoan euskara-eskakizunak arautzen dituenari, hango kasuistika jaso eta bere prezioa zehazte aldera. Han jasotako egoeren deskribapena ez da, ondorioz, materiala, igorpen zuzen eta formala baizik. Honek, azken finean, dakarren efektua da oro har zabaltzen dela hasera batean sektore publikoarentzako pentsatutako hizkuntza-egiaztatze sistema. Eta hori egingo bada, aholkularitza honen iritziz inguruabar hori espedientean nolabait azaldu eta motibatu beharra dago.

2.- Ezabatutako kategoriak. Memoria ekonomikoak ez du aipatzen edota motibatzen zergatik ezabatzen diren arau zaharrean zeuden baina berrira eraman ez diren kategoriak. Horrek, bere horretan, ez dakar objekzio juridikorik, eskuduntzaren erabilera programatiko eta diskrezional bat den neurrian, eta aholkulari honen ustea da ezabatutakoak hondar-izaera duten prezioak zirela, sistematika berri batean beharrezkotzat jo ez direnak. Baina ohartarazi behar da, Espainiako Konstituzioaren 31. artikuluan eta Zergei buruzko Lege Orokorraren 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zergak legezkotasun-printzipioak arautzen dituela, eta, ondorioz, ordainarazpen-arauan jasotzeari uko egiten zaion guztia kobraezin bihurtzen dela arau hori indarrean dagoen bitartean, aldatzen ez bada.

3.- Idazketa-arauak eta gomendioak. Testuak binetak eta gingilak erabiltzen ditu bere azpiatalean. Hori ez dator bat Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenean aurreikusitakoarekin. Ebazpen horren bidez, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen erabakia argitaratzea xedatzen da. Beraz, egokitzeko eskatzen da.

- c) Eskuduntza-banaketaren baitan arautzearen egokitasuna: Txosten honen 1. atalean jorratu da.
- d) Ekonomian eta aurrekontuan duen eragina: Berariazko memoria ekonomiko eta justifikatzailean jorratu da.
- e) Karga administratiboak: HABEk honez gero jasotzen ditu ematen dituen zerbitzuei dagozkien prezio publikoak, eta hori jada ezarrita dagoen prozedura bat izanik, kopuru berriak aplikatzeak hondarreko eguneraketa bat besterik ez dakar. Bestetik, esan denez, prezio publiko batzuk arautik desagertu egin dira, eta ondorioz, haiei zegokien karga administratiboa aurreztu egingo da.
- f) Generoaren arabeko eraginari buruzko txostena: Eskatuko zaion berariazko txostenean Emakundek esan dezakeenari kalterik egin gabe, ez da antzematen arau-egitasmoak berariazko talkarik egiten duenik sexuen arteko berdintasunean; are gehiago, genero-ikuspegia txertatuta duen egitasmo bat da, genero-indarkeriaren biktima izan direnei 3. Artikuluan aurreikusten diren prezio publikoak salbuesten dizkien neurrian.
- g) Euskararen erabileraren normalizazioa: Txosten honen azken atalean zehazten den bezala, gaiari buruzko berariazko txostena eskatuko zaio Hizkuntza Politika Sailburuordetzari, baina horri kalterik egin gabe, hemen adierazi nahi da, azken batean, normalkuntza hori bera dela, azken finean, egitasmo honen xedea, herritarrek normalkuntza horretarako HABEk jartzen dituen baliabideez baliatzeak izango dien kostua, eta haren arrazoizkotasun eta proportzionaltasuna (memoria ekonomikoan zehaztutakoa) baita hemen araututakoa.
- h) Haur eta nerabeen gaineko eraginari buruzko azterketa: Ez da berariazko eraginik antzematen, gazteekiko eraginari buruz esango denari kalterik egin gabe.
- i) Izapidearen deskribapena: Txosten honen azken atalean jorratzen da.
- j) Gazteen gaineko eraginari buruzko azterketa: izapidetzen den araua erlazionatu beharra dago euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzeagintza arautzen dituen 2020ko irailaren 9ko Aginduekin, bertan gazteek, eta berariaz adingabeek, badutelako egiaztatzeagintza horretara aurkezteko bidea, eta bide hori jorratuz eta erraztuz, 3. artikuluan aurreikusten diren prezioez salbuetsita daude kategoria bereziko familia ugariak, eta gainerakoek %50eko beherapena dute.
- k) Irisgarritasuna: Arestian aipatu den moduan, irisgarritasunaren printzipioa egoki jasotzen da, arauak bere egiten baitu, hain zuzen ere, printzipio hori garatzeko 19/2024 Dekretuak ezarritako taxonomia, haien artean desgaitasun bat duten hizkuntza-egiaztatzen partzialena (zeintzuek, muga fisikoak direla eta, ezin dituzten trebetasun guztiak egiaztatu) bere egiten duen neurrian.



- l) Garrantzitsuak izan daitezkeen beste eragin batzuen ebaluazioa: Prezio publikoak ezartzen diren neurrian, ezinbestekoa da Zerga Administrazioiko txostenak baieztatu txostena ematea, arestian zehaztu den moduan.
- m) Ex-post ebaluazioa: Prezio publiko hauen egokitasuna eta etorkizunean behar izan daitezkeen eguneraketak HABEko kudeaketa zerbitzuak egingo ditu.

V.- PROZEDURA ETA HURRENGO IZAPIDEAK.

Orain arte emandako izapideei dagokionez, espedientean ageri diren izapideen arabera, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Aginduz abiatu da xedapen-proposamena onartzeko prozedura, ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarenak, 12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta Lege horretan, eta legearen babesean hasierako Agindu horretan zedarrituriko izapideekin bat etorritik izapidetu da orain arte prozedura.

Egitasmoaren proposamena idatzi ondoren, aldeztu aurretik onartu du Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2026ko abuztuaren 8an proposamen hori, aipatutako Legearen 15. artikuluan EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarkitaulan eta Legesarean argitaratuz proposamena eta aldeztu aurreko onarpena emateko Agindua. Argitaratzearekin batera, abiatu da jendaurreko informazio-epealdia, bai hiritarrek, baita ere Administrazioiko sailek eta erakundeek, bidezkoztat jotzen dituzten ekarpen eta iradokizunak egin ditzaten.

Prozedura abiatzeko Aginduan zedarritu ziren egitasmoa bideratzeko jarraitu beharreko izapideak:

Besteak beste, honako izapide hauek ez ziren beharrezkotzat jo:

- Aurretiazko entzunaldia.
- Legezkoatasunari buruzko nahitaezko txostena.
- Entzunaldi eta informazio publikoa.

Aurretiazko entzunaldiari dagokionez, egitasmoaren edukia ikusirik, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikuluen 1. eta 4. ataletan eta XOEPLren 11.4 artikuluan aurreikusitakoa kontuan harturik, legediarekin bat dator aurretiazko kontsulta ez bideratzea arau-proposamenak eragin nabarmenik ez duelako jardura ekonomikoan, hartzaileei betebeharrak garrantzitsurik ezartzen ez zaielako eta gai baten alderdi partzialak bakarrik arautzen dituelako.

Hain zuzen ere, proiektaturiko xedapen orokorraren xedea aldeztu aurretik araututako prezioak eguneratze eta sistematizatea denez, eta kasu honetan HABEk Eusko Jaurlaritzako sailei eta haien mendeko erakundeei dagozkien kudeaketa-gomendioen bidez ematen dizkien zerbitzuei ia eskusiboki eragiten dienez, proiektuaren berri eragindako sail eta erakundeei ematea eta haiek proiektua egiteko prozesuan parte hartzeko aukera bermatuta geratzen da, prozedurari hasiera emateko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean argitaratzean automatikoki egiten den sail guztiei helaraztearekin, egoki irizitako ohar guztiak egin ditzaten.

Legezkotasun Txostenari dagokionean, aipatu behar da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa arautzen duen apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 12. artikuluan g) atalak dioenari jarraikiz, salbuetsita daudela izapidetik prezio publikoak ezartzeko xedea duten xedapenak.

Ondoren zehaztutako txostenak, berriz, ez dira bidezkoak orain izapidetzen den egitasmoaren xedea eta edukiaren ikuspegitik:

- Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena
- Lan Harremanen Kontseiluaren txostena
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren txostena
- Europar Batasunaren aurreko izapideak

Azkenik, enpresa-eraginaren inguruan, ekainaren 28ko 16/2012 Legeak, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoak, 6. artikuluan aurreikusitakoaren aldetik, Aholkularitza Juridiko honen iritziz, proiektaturiko arauaren xedea ez dio inolako oztoporik jartzen jardura ekintzaileari Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, ez duelako inolako eraginik enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan.

Izapidetutako prozeduraren jarraipenari begira, aipatu 6/2022 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, ondoren zehazten diren txostenak eman eta izapidetu beharko dira:

- Memoria ekonomikoa, honez gero espedienteari erantsi zaiona (Tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen Testu Bateginaren 33.2 artikulua eta xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko 6/2022 Legearen 15.5 artikulua).
- Kultura eta Hizkuntza Politika saileko Hizkuntzaren Normalkuntzarako Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz, xedapen orokorrak egiteko

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

prozeduraren barruan eman behar duena.

- Zerga Administrazioari Zuzendaritzaren txostena, martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutako Testu Bateginak eta uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuaren 3. artikulua diotenaren arabera.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, ekonomia-arauen kontrolari buruzkoa (2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).

Txosten honetan jasotakoa da orain arte izapideturiko Agindu-egitasmoari buruz adierazten dena.

Donostian, sinadura elektronikoaren egunean.

Eñaut Otazo Alza

HABEren Aholkularitza Juridikoko arlo-arduraduna

